

Beste behin ere LABetik administrazioaren alde bakarreko jokabidea salatu nahi dugu



Gizarte Segurantzak telematikoki bidalitako agiria Lurraldeko ordezkarietaz jaso arte, Sailak ez ditu bajak kudeatuko; honen ondorioz, ordezkapenak lehengo egunetik betetzea ezinezkoa izango da.

LABek ez du onartuko langileen lan balditzen urraketa hau; gainera, hezkuntza publikoaren kalitatea ahultzen duen beste urrats bat dela eta sinatutakoaren aurka doan alde bakarreko erabakia dela argi utzi nahi dugu.

Ordezkoen araudiaren urraketa

Alde bakarreko erabaki honek 2025eko uztailan sinatutako lan hitzarmenaren III. Eranskina urratzen dubete betean. Zehazki, “Ordezkapenetarako hautagaien zerrenden funtzionamendua” ataleko 1.2 puntua.

Lan-legepeko langileen baje ordezkapenen kudeaketan aldaketak egongo direla jakin berri dugu ikastetxeetako langileek abisatuta.

Hezkuntza Sailarekin gai hau kontrastatu dugu eta hemendik aurrera kudeaketa aldatuko dela adierazi digute. Administrazioak alde aurretik erabaki hau langileen ordezkarioi komunikatu ez izana salatzen dugu.

Puntu horretan hau zehazten da:

1.2. Ordezlaguneko eskaintzak:

Ikasturtean zehar, hezitzaileen plaza bat bete behar denean, Ordezlagunea aplikazioaren bidez eskainiko da.

Oro har, kontratua hasi aurreko laneguneko 12:00ak arte ikastetxeko zuzendaritzek jakinarazitako ordezkapen guztiak sartuko dira Ordezlagunean.

Gauzak horrela, LABek mahai parekidea eskatu dio administrazioari gai hau argitzeko eta langileen eskubideak eta ikasleen beharrianak asetuko dituen irtenbide bat aurkitzeko.